

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foruzaingoak Elizondon abiatu du zonaldeko enpresa eta saltokien segurtasunari buruzko prebentzio-kanpaina

*Beren arriskuak aztertzeke gida bat, segurtasuneko eskuliburu bat eta betetzen dituen zerbitzuen zerrenda bat eskaini dizkie*

Jueves, 17 de enero de 2013

Elizondoko Foruzaingoak komisariak segurtasuneko prebentzio-kanpaina bat abian jarri du haren eraginpeko zonaldeko enpresa eta saltokietan, bi helbururekin: agenteek betetzen dituzten zerbitzuen berri ematea, eta haiekin batera prebentzioko lankidetzaz sustatzea, auzolan-eran.

Era horretan, Foruzaingoak zonaldeko 600 enpresa eta saltoki baino gehiago bisitatu ditu, eta gida bat eman die beren arriskuak azter ditzaten eta, horren ondorioz, lapurretak eta kalteak ekiditeko. Halaber, segurtasun-eskuliburu bat eman die, eta bertan gomendio batzuekin batera, Foruzaingoak eskaintzen dituen zerbitzuen zerrenda azaltzen da.

Bestalde, Foruzaingoak prebentzioko patrulak egiten ditu, gauean bereziki, zonalde horretako enpresa eta saltokietan. Iaz era horretako 4.000 zaintza inguru egin zituen.

Foruzaingoak ere segurtasun-sistemen eraginkortasunari buruzko aholkularitza eskaintzen du prebentzio eta polizia-ikerketari dagokionez. Gainera, enpresa nahiz saltokien artean segurtasun-sare bat sortu nahi du prebentzioko mezu komunitarioak zabaltzeko, horretarako mezu elektronikoak bidaliz.

### Segurtasun-gomendioak

Foruzaingoak Elizondoko zonaldeko enpresari eta merkatariari eman dizkien gomendioen artean, nabarmendu behar da, lapurretako alarma-abisua badago, 112 SOS-Navarrara dei dezatela agenteak joan daitezten miaketa egitera eta egungo erantzun-denbora murriztu dadin.

Gainera, Foruzaingoak gomendatzen die beren negozioetan inbertituko duten euro bakoitzak beren enpresa nahiz merkatarien segurtasun objektiboa hobetu dezatela. Gainera, gogora ekarri du sarritan segurtasuna areagotu daitekeela zero-kostuarekin.



Foruzaingoaren ibilgailua.

Edozein kontsulta egiteko, Elizondoko zonaldeko enpresario eta merkatariak udalerrri horretako Foruzaingoaren komisariarekin harremanetan jar daitezke 948 581 864 telefonora dei eginez edo ondorengo helbide elektronikora mezu bat idatziz: [pfelizondo@navarra.es](mailto:pfelizondo@navarra.es).